

# INKESTAREN GALDETEGIA

## BIZTANLERIA

### Sarrera:

Aurreikuspenen arabera, biztanleria gero eta zaharragoa izango da gure herrietan. Batetik, urte gehiago bizi garelako; bestetik, haur gutxiago jaiotzen direlako. Zahar gehiago eta gazte gutxiago, labor esanda. Horrek hainbat ondorio izan ditzake: edadetuak zaintzeko baliabide gehiago behar izatea, lanpostu guztiak betetzeko zailtasunak izatea jende faltagatik...

Bestalde, migrazio mugimenduak izaten dira herrialdeen eta herrien artean: atzeritik datoz batzuk bizimodu hobetago baten bila, beste batzuk badoaz hemendik lan bila; eta inguruko herrien artean ere izaten dira migrimenduak, herri batzuk hazten ari dira eta beste batzuk biztanleria galtzen.

### Galderak:

#### - **2050ean, Zumaiak zenbat biztanle izango ditu?**

Nire ustez, orain egun bezala, hau da, 10000 biztanle gutxi gora-behera eta geroz gutxiago zeba oraindela gutxi ere datuak eman dituzte Donostian datuak eta datuak konfirmatzen diren data gaur egunera minimoetan gaude, ondorioz, geroz eta gutxiago.

#### - **Jatorriari dagokionez, nolakoa izango da herria?**

Nire ustez, pandemia baina lehenago atzerriko jendearekin nahasketa desberdintasun geahigo ikusten ziren eta gero pandemiarekin lana galduta eta beraien bizitzeko maila okertzen batzuk joan egin dira eta beste batzuk geratu egin dira, eta nire ustez pixkat gehiago egongo dela?, bai posible da.

## EKONOMIA

### Sarrera:

Industria izan da Zumaiako ekonomiaren motorea eta oraindik ere hala da. Dena den, azken urteotan beste jarduera batzuk ari dira indarra hartzen, gehinbat turismoarekin eta aisialdiarekin lotutakoak. Bestalde, lehen sektoreak (baserritarrak, arrantza...) oso pisu gutxi du Zumaiian, eta ez dirudi indartzeko joerarik duenik. Azkenik, herriko merkataritza garai zailak bizitzen ari da, kontsumo ohiturak aldatzen ari direlako: gero eta gehiago erosten dugu Internet bidez herriko dendetan baino.

### Galderak:

#### - **Zertan egingo dute lan zumaiarrek?**

Nire ustez, Zumaia beti izan industria aldetikan oso potente edo indartxua den herri bat, eta turismoak ez du bere indarra eduki baina urteak pasa direnez, hori ere aldatu egin da eta bai industriak eta turismoak bere indarra ematen ari da eta horretaz biziko dela jendea pentzatzen dut.

#### - **Nolakoa izango da herriko merkataritza?**

Herriko merkataritza nire ustez, pandemia baino lehenago nahiko ondo ikusten zen eta pandemiarekin jada jendea eta gazteak gehinbat internet bidez egiten dute erosketak asko, horrek modernizatu egin behar izaten direla edo itxi. Eta ez direnak izten, modernizatu edo baita inguruko baserriko elikagaiak indarra ematen, ekologiako buruzko temari indarra ematen eta kalitatezko harremanak eta zerbitzuak ematen badituzte mantenduko dira.

## JASANGARRITASUNA

### Sarrera:

Mundu mailako erronka da jasagarritasuna, baina zer esan nahi du? Planetak jasan dezakeena baino gehiago ari garela kontsumitzen gure bizimoduarekin eta martxa hau ez dela bideragarria. Hainbat arlotatik azter daitekeen gaia da; esate baterako, energia eta mugikortasuna. Erregai fosilak erabiltzen ditugu gaur egun energia sortzeko, horiek eragiten dute negutegi efektua atmosferan eta, ondorioz, klima aldaketa. Gainera, agortzen ari dira. Haien ordez, iturri berriztagarriak erabiltzen hasi gara, baina nahikoa izango al da? Bestetik, mugitzeko dauzkagun ohiturek ere eragin handia dute energiaren kontsumoan.

### Galderak:

#### - **2050ean, nolakoa izango da herriko energia kontsumoa?**

Nire ustez, herriko energia kontsumoa antzekoa izango da, gehienbat politikariak eta gure agintariei ikusi behar diegu ea beraiek aldaketa gogor horiek badituzten edo denak ados edo ia denak ados egon behar dira. Baina herri baten ez dakit, adibidez hemen inguruan badago, Mutriku aldean, itsasoko energia berriztagarria eta hori an egiten den bezala pentzatzan det, solarrak posible izango zela gure herriko zelai edo partzela baten udaletxearen partez, horrela zerbait sortzen bada energia pixkta desberdina posible izango zela, baina ez det uste ain errez sortuko zela horrelako aldaketarik.

#### - **Ados zaude esaldi hauekin? Zergatik?**

##### 1. Zientziari eta aurrerapen teknologikoei esker lortuko dugu arazoei aurre egitea.

Berez, ados nago horrekin baina noski, zientzialariak egindako probak eta gero erakutzita zer lortu den negatiboki gizakion partez, baina gero agintariak ez badute kaso andirik egiten, ez da aurrerapen asko egongo, ondorioz, or jende gehiagok hartu behar dute parte, zientzialariek asko dakite eta proba asko ere egin dituzte (kliman aldaketak...) baina, noski, gero aldaketa oso pontenteak egiten behar dira eta hori jada gobernariak eta politikariak egin behar dute.

##### 2. Gure bizimodua aldatu beharko dugu, ez da munduarentzat jasangarria.

Ados nago, mundua aldatu egin behar da, gure ohiturak, bizitza, gure erosotasuneko gauzak...etb. Horrek erantzun negatiboa egiten du naturan eta danean ikusita dago eta zer aldaketa eta zer klima aldaketa sortzen duten, uholdeak, udan negua izango baten bezala egoten da toki askotan... baina, noski, gure eskutan bakarrik ez dago hau. Eta zer ohitura aldatu beharko ziren gure bizitzan? Ba, adibidez, garraio publikoa errestazun gehiagorekin jarri, merkeago, hau da, tentagarria izatea adibidez, erosketak momentuan ere enpresa handiek gehienbat "pega" asko jartzea, zeren eta, batzuetan eskaintza handi bat bezala jartzen dituzte "pack hau eramaten baduzu merkeago egingo zaizu" baina pack horretan, edukiontzia plastikozkoa izan arren, dena kartoiez biltzen dute eta horren gainetikan plastikoak. Eta gero etxea joan, eta haber zenbat gauza bota behar dituzun basuretara plastiko eta kartoi hori denekin, eta ez dute hori egin beharrik, bakarka jartzen badute apaletan hori gutxiago ezta? zuk pentzatzan hasi eta hori bakarrik planeta osoan egiten bada. Eta gero adibidez, marka oso ospetsu bat janari azkarrak (comida rapida) horiek, bai erretiluak, kartoiak, plastikoak, lastoa (pajita) dena zaborrontzi berdinerara botatzen dute eta inork ez diete ezer esaten, hori ere mundu osoan gainera oso kate indartsua da, multinazionala bada, horri ere frente egin behar zaio. Ez etxez-etxez konposta eta horrelako gauzak egin joan bai, hori ere egin behar da, baina gero enpresa indartsu horiei ere frenatu egin behar zaie gauz hauetaz.

## KLIMA ALDAKETA

### Sarrera:

Klima aldaketa gertatzen ari dela baieztatu dute mundu osoko zientzialariek eta neurriak hartu beharra dago ondorioak oso kaltegarriak izan ez daitezzen. Ondorioetako bat itsasoaren igoeraren maila izango da, eta Zumaiari modu zuzenean eragingo dio. Beste ondorio bat izango da euri-jasa bortitzagoak izango direla eta, aldi berean, lehorre garai luzeagoak izango ditugula. Urola ibaiaren itsasadarrean bizi garela kontuan hartuta, nola eragingo digu?

Galderak:

- **Itsasoaren mailaren igoerari aurre egiteko, zer neurri hobetsiko zenuke?**

Bueno, or esaten duen bezala, saiatu behar dela industria aldetikan aldibidez temperatura graduak edo kontaminante hori jeistea eta gero baita ere, itsasoari toki gehiago ez kentzea, zeren eta azkenean toki askotan terrenua kendu da, hau da, bere gainean portu handiagoak egin, azalera handiagoa jarri eta hori batzen asten bazara mundu osoan, ba noski, uholde gehiago egongo dela, euri gehiago... etb gehi, lurrak edo tokia kenduta itsasoari egongo dira aldaketa oso gogorak.

- **2050ean, Zumaian klima aldaketaren ondorioak jasango al ditugu?**

Bai, nire ustez bai, oso gertu bizi gara. Itsasoa dakagu ondoan, urola bukaera ere bai, ondorioz, esaten badute itsasoaren igoera x cm igoko dela, hori euriarekin eta klima aldaketarekin batuta ba bai. Uholde gehiago edukiko dugu eta arazo gehiago.

## **JENDARTEA**

Sarrera:

Mundu aldakor honek zer eragin izango du gure herriaren izaeran, ezaugarrietan? Lortuko dugu herri hobeago bat izatea edo arazoak larriagotu egingo dira? Lortuko dugu gure ohiturak, hizkuntza eta nortasuna mantentzea edo indartzea, edo galdu egingo dira globalizazioaren aurrean?

Galderak:

- **Hiru esaldi hauetatik aukeratu zure iritzira gehien gerturatzen dena:**

1. Zumaia herri orekatua da arlo gehienetan, bizitzeko leku hobeagorik ez dago, eta ez dut ezer aldatzeko beharrik ikusten etorkizunean ere hala izan dadin.
2. Herriko ekonomia suspertzea eta indartzea, sor daitezkeen aukera guztiak aprobetxatuz, denontzat lan aukerak egon daitezzen.
3. Garapen jasangarriaren bidean jartzea, gure bizimoduan eskatzen dituen aldaketaz asumituz, hurrengo belaunaldiek Zumaian duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.

Nire ustez, eta nere iritzia gehien gerturatzen dena da, lehenengoa adibidez, zeba niretzat Zumaia herria denetik dauka, bizitzeko toki oso ederra da, itsasoa dauka, ibaia, herri oso lasaia, mendia ere badu. Orduan kirola egiteko ere bai, itsas kirola moduan, mendian, hau da, zoragarria zati horretatik. Ondoren, ekonomia aldetikan ere, ikusten dut, bai tailer txiki bezala, ekonomikoki indartsua ikusten dela eta jende asko lan postu asko sortzen direla eta bizitzeko behar da. Oso toki zoragarria eta bueno hirugarrenean hori izango zen nire ustez, denok nahiko genukena ez? garapen jasangarriaren bidean jartzean gure bizimoduaren eskatzen ditugun aldaketa asumituz, hurrengo belaunaldian Zumaian duintasun bizitzeko aukera izan edukitzea gazte denak. Baina nire ustez, herri ona eta ekonomikoki ona mantentzen bada hirugarrena ere lortzea posible dela. Eta bide onetikan goazela.

- **2050ean, nolakoa izango da Zumaiako gizartea?**

Nire ustez, aldaketa handia ez da egongo eta egotekotan positiboki egongo dela pentzaten dut ez txarrera. Eta desberdintasunak ez egotea klase sozialetan eta orduan, nik nahiko nuke pentzatu orain bezala edo hobiago.